

Katedrala, protagonista FITUR 2020ko “stand onenean”

Gasteizko Santa Maria Katedrala Euskadiko standeko erakarpentzen handienetako bat izan da berriro ere Madrilaren urtariraren 21etik 26ra bitartean egin den FITUR Nazioarteko Turismo Azokan, eta aurten, Azokako epaimahaia “stand onena” izendatu du Erakundearen eta Autonomia Erkidegoaren kategorian.

Zehazki, EAEko eta Arabako erakundeek turoperadore handien aurrean aurkeztutako bi propo-

samen berriren parte garrantzitsua izan da Katedrala. Alde batetik, “Hiri zuriaren isiltasunaren” ibilbidea, Eva Garcia Saenz de Urturiren eleberria girotzen den tokietan oinarritua, eta, bestetik, “Araba, jomuga inklusiboa” ekimena. Kasu horretan, igogailuei, zeinu-interpretuei, azpitu-luei eta maketei esker Katedrala mugikortasun urriko pertsonentzat eta ikusmen eta entzumen desgaitasuna dutenentzat irigarria dela erakusten duen bideoa aurkeztu zen.



Santa Anako eskulturak zaharberritzea

Portada horretako multzo arkitektonikoa berreskuratzeko lanen barruan dagoen Santa Anako Atearen jatorrizko lau eskulturak zaharberritzeko prozesua, aurrera doa. Joan den abuztuan Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuan lantzeko jatorrizko kokalekutik kendu zituztenetik, adituek aurrera egin dute horietako bi zaharberritzeko lanetan. 4 piezak zaharberritzeko prozesua martxoan amaitzea aurreikusten da.

Lanen barruan polikromien azterlan bat egin da, eta, horri esker, egin ziren unean, XIV. mendeko lehen herenean, lau eskulturen jatorrizko egoera zein zen jakin ahal izan da. Izan ere, bi eskultu-

ratan, lehenengo olio-polikromatu horretatik 3Dko berreraikuntza birtuala egin ahal izateko nahikoa datu gordetzen dira.

Azterlan horren ondoren, polikromia eta euskarria garbitzeko eta sendotzeko tratamendu probak egin ziren. Aukeratutako tratamendua garbiketa mekaniko-kimikoko eta laser bidezko sistema misto bat izan zen, zikinkeria-deposituak eta zarakar beltzaren hasiera desagerrarazteko.






“Obretan eta irekita”, zuzenean. TVEko “España Directo” saioa Katedrale-
ra hurbildu zen joan den urtarrilaren 7an, eta bisita birtual batez gozatzeko aukera eman
zien ikus-entzule guztiari. Zuzeneko konexioari esker, Gasteizko bista ezin hobekak ikusi
ahal izan ziren kanpandorretik.

Familei zuzendutako hurrengo bisitak

Familei zuzendutako hurrengo bisitak datozen egunetan izango dira:

Otsailak 8	17:00	gaztelaniaz
Otsailak 22	17:00	euskeraz
Martxoak 14	17:00	gaztelaniaz
Martxoak 28	17:00	euskeraz



Xehetasuna

Murillo bat Katedralean? “Gazeta de Madrid”, Estatuko Aldizkari Ofizialaren aurrekoa izan zen aldizkariak, aipamen berezia egin zion Santa Maria katedralari 1808ko uztailaren 17an, igandean. Patxi Viana Historia irakasle eta doktoreak jakin duenez, Espainiako Errege izendatu berri zen Jose Bonapartek Gasteizera egindako bisitari eskaintako informazioan esaten denez, orduan oraindik Kolegiata (gaur egungo Katedrala) zenera “meza entzutera” joan zen, eta “sakristian Eraistea irudikatzen duen Murillo ospetsuaren quadro eder bat zegoela jakinda, ikustera joan zen”.



Santa Anaren taila ere bueltan da

Zaharbertitze prozesu luze baten ondoren “Santa Ana eta Ama Birjina” koadroa Katedraleko jatorrizko lekura itzuli eta gutxira, oraingoan XV. mendeko taila gotiko bikain baten txanda izan da. Egoera kritikoan zegoen obra Itziar Garcia zaharbertitzailearen lanari esker berreskuratu da, eta dagoeneko haren izena daraman kaperan jarri da. Irudian, Santa Ana eta bere magalean dagoen Ama Birjina alaba agertzen dira, koroatuta eta Jesus haurrari eusten.